BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1616

EBAZPENA, 2014ko apirilaren 4koa, Industriako sailburuordearena, zeinen bidez argitara ematen baita Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak 2014ko martxoaren 26ko Aginduak araututako laguntzak emateko deialdia. Laguntza horiek «Global Training» beka-programa martxan jartzeko gaitasuna duten erakundeentzako dira –2014ko ekitaldia–.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko martxoaren 26ko Aginduaren bidez arautzen da beka-programa hau martxan jartzeko gaitasuna duten erakundeentzako laguntza-programa –«Global Training»–, goi-mailako lanbide-prestakuntza edo unibertsitate-titulazioa duten gazteek atzerriko enpresa eta erakundeetan praktikak egin ahal ditzaten (2014ko apirilaren 2ko EHAA).

Aipatutako aginduaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da «Global Training» beketarako 2014ko ekitaldirako erakundeak hautatzeko deialdia egitea, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak ematea.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 6. artikuluan ezarritako eskumena erabiliz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko martxoaren 26ko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2014ko deialdia egitea. Agindu horren bidez arautzen dira «Global Training» beka-programa martxan jartzeko gaitasuna duten erakundeentzako laguntza horiek.

Bigarrena.– Baliabide ekonomikoak.

Deitutako laguntzak finantzatzeko, 3.200.000 erabiliko dira guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2014ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 4/2013 Legean hartarako ezarritako aurrekontu-kredituaren kargura.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko lekua eta epeak.

1.– Programa honetan parte hartzen duten erakundeek izapidetze telematikoaren bidez beteko dute eskabidea eta horrekin batera eskatzen den dokumentazioa, eta horretarako eskabide-eredua www.euskadi.net/industria web-orria erabiliz eskuratu eta Administrazioan aurkeztuko da, edo, bestela, www.euskadi.net/industria web-orrian eskabide-eredua bete eta grabatu, inprimatu eta, ondotik, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailekoa Nazioartekotze Zuzendaritzako Lurralde Ordezkaritzaren batean aurkeztuz, dela zuzenean, dela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritako bideren bat erabilita. Betiere, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen egin beharko da hau guztia.

Eskabide-ereduak ebazpen honen III. eranskin gisa argitaratzen dira.

2.– Deialdiko beketarako eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean hasiko da; amaitu, berriz, 2014ko maiatzaren 15ean.

Laugarrena.– Balorazio-irizpideen haztapen orokorra.

Aginduaren 10. artikuluan aipatzen diren baloario-irizpideak ebazpen honen IV. eranskinean zehaztutakoaren arabera haztatuko dira.

Bosgarrena.– Agindu arautzailearen 4. artikuluan xedatutakoa betetzearren –diruz lagungarri diren gastuak zehazteari buruzkoa–, ebazpen honen II. eranskinean, eman behar den prestakuntza espezifikorako kurtsoen Oinarrizko Programa ezartzen da, eta, II. eranskinean, aldiz, beka eman zaion pertsonako praktikaren hileko dotazioaren zenbatekoa ezartzen da.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 4a.

Industriako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GARCÍA DE MOTILOA UBIS.

I. ERANSKINA

AURRETIKO PRESTAKUNTZA IKASTAROAREN GUTXIENEKO EDUKIAK

– Iraupena: 40 ordutik 60 ordura bitartekoa

– Prestakuntza horrek honako gai hauek izango ditu, bestek beste:

1.– Nola jorratu atzerrian egiten den praktika.

2.– Kulturarteko negoziazioa.

3.– Komunikazio-teknikak.

4.– Talde-lana.

5.– Adimen emozionala.

6.– Berrikuntza.

7.– Beste batzuk, praktika motaren arabera.

II. ERANSKINA

DOTAZIOA, HILEKO BALIO UNITARIOAN, BEKA GUZTIENTZAKO DAGOEN AURREKONTUA KONTUAN IZANIK KALKULATUTAKOA

Beka-kopurua: 370

Beken iraupena: 6 hilabete

Hileko dotazioa: 1.124,77 euro

Agindu arautzailearekin bat etorriz, dotazio ekonomiko horren bitartez, honako gastu hauei egingo zaie aurre: EAEtik destinoko herrialderako joan-etorriak; mantenua, ostatua eta Gizarte Segurantzarentzako kotizazioak, eta, halaber, beharrezko bada, bisatuak eta txertoak lortzea ere.

III. ERANSKINA

EUSKO JAURLARITZA
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA
Industriako Sailburuordetza
Nazioartekotze Zuzendaritza

AGINDUA, 2014ko martxoaren 26koa
(2014ko apirilaren 2ko EHAA)

EBAZPENA, 2014ko apirilaren 4koa
(2014ko apirilaren 7ko EHAA)

AURKIBIDEA

● **INFORMAZIO OROKORRA**

1.– LAGUNTZEN LABURPENA

2.– INFORMAZIOA

3.– AURREIKUSITAKO EGUTEGIA

4.– ESKABIDEAK AURKEZTEA

● **AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

● **ESKABIDE-ORRIA**

I.– ESKABIDEA

II.– ZINPEKO ADIERAZPENA

III.– ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA

IV.– PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

"Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 5. artikuluan xedatutakoarekin bat, jakinarazten dizuegu formulario honetako datuak Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailaren erregistro informatiko batean sartuko direla".

1.– LAGUNTZEN LABURPENA

GASTU DIRUZ LAGUNGARRIAK	MUGADIRU-LAGUNTZA (euroak)	OHARRAK
– Prestakuntza-ikastaroak	500 beka bakoitzeko	Ezin izango dira 500 euro baino gehiagoko gastuak egin, emandako bekako.
– Bekak emateko gastuak	Deialdiaren ebazpena	Urteko deialdiaren ebazpenean agertzen den hileko dotazioa
– Aseguru polizetatik eratorritako gastuak	400 beka bakoitzeko	Gaixotasun eta istripu-arriskuak estaltzen dituen asegurua, baita herrialdera itzultzea eta hirugarrenekiko erantzukizun zibila ere.
– Bekak kudeatzetik eratorritako gastuak	1000 emandako bekako	Beka-programen abian jartzea, kudeaketa, administrazioa, jakinarazpena eta publizitatea.

LAGUNTZAREN ORDAINKETA	OHARRAK
Prestakuntza, aseguru-poliza eta beken kudeaketako gastuen % 50.	Emandako beka onartu eta gero.
Beken dotazioko gastuen % 50.	Emandako beken zerrenda aurkeztu eta gero.
Prestakuntza, aseguru-poliza eta beken kudeaketako gastuen gainerako % 50a. Beken dotazioko gastuen gainerako % 50a.	Bekak amaitzean eta dagokion egiaztagiria aurkeztu eta gero.

2.- INFORMAZIOA

Nazioartekotze Zuzendaritza
Donostia kalea 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 99 80 / 81 / 42
Faxa: 945 01 99 22

E-maila: iezkurra@ej-gv.es
m-estibalez@ej-gv.es

Web-orria: www.euskadi.net/industria.

3.– AURREIKUSITAKO EGUTEGIA

a) Eskabideak aurkezteko epea: 2014ko apirilaren 4tik maiatzaren 15era.

b) Ebazpena: sei hileko epean gehienez, urteko deialdia EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

c) Gastuak justifikatzea: 2015eko azaroaren 30a arte.

4.– ESKABIDEAK AURKEZTEA

Eskabideak eta dagozkion agiriak helbide honetan utziko dira, edo bertara bidaliko:

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA
NAZIOARTEKOTZE ZUZENDARITZA
Donostia 1, 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).
Tel.: 945 01 99 80 / 81. Faxa: 945 01 99 22
E-maila: m-estibalez@ej-gv.es iezkurra@ej-gv.es

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNEKO ARABAKO LURRALDE ORDEZKARITZA
Samaniego 2, 01008 Vitoria-Gasteiz.
Tel.: 945 01 70 52. Faxa: 945 01 70 51
E-maila: e-araba@ej-gv.es

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNEKO BIZKAIKO LURRALDE ORDEZKARITZA
Concha jenerala 23, 48010 Bilbao.
Tel.: 94 403 14 79. Faxa: 94 403 14 45
E-maila: e-bizkaia@ej-gv.es

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNEKO GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA
Easo 10, 20006 Donostia.
Tel.: 943 02 25 57. Faxa: 943 02 25 42
E-maila: e-gipuzkoa2@ej-gv.es

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.– Eskabidea izenpetzen duenaren **NAN**ren fotokopia.

2.– Erakunde eskatzailearen **Identifikazio Fiskaleko** txartelaren kopia.

3.– Entitatea **eratzeko** eskrituraren kopia.

4.– Eskabidea egin behar duen pertsonaren **ahalordetzaren** kopia.

5.– Proiektuak eta prestakuntzari buruzko jarduerak burutzeko eskatutako **esperientzia**egiaztatzeko agiriak (3.1.b art.).

6.– Global Training Beken programa bat **burutzeko proiektua**, zeinek honako hauek bildu beharko baititu:

– Deituko den beka-kopurua (40 eta 80 bitartean)
– Eskaini beharreko prestakuntza-plana. 40 eta 60 ordu bitarteko ikastaroak barne hartuko ditu.
– Proiektua egoki burutzeko gauzatu beharreko jardueren kronograma.
– Proiektuan barne hartutako jardueren aurrekontu osoa.
– Proiektua burutzeko, erakundeak erabilitako giza baliabideak eta materialak:
– Proiektuaren burutzapenean inplikatuta dauden erakundeko pertsonen curriculum vitaea.

7.– Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatzen duen **ziurtagiria**.

8.– Zinpeko aitorpena, adieraziz sexu-diskriminazioagatik zigor administratiborik edo penalik ez duela jaso eta, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraikiz, deialdietan edo laguntzetan parte hartzeko debekuarekin ez dagoela zigortuta.

9.– Helburu bererako beste erakunde batzuei diru-laguntzak eskatu badira, laguntza horien **eskabidearen** kopia. Diru-laguntzak horiek eman badira jada, horien **ebazpenaren** kopia.

I.
ESKABIDEA

1.– ESKATZAILEA

Erakunde eskatzailea:
Legezko ordezkaria: Sexua: Gizona☐ / Emakumea ☐
Kargua:
Izapidetzearen arduraduna: Kargua: Kontaktuetarako telefonoa: Kontaktuetarako e-maila:

2.– GARAPEN-PROIEKTUA:

Zenbat bekatarako deialdia egingo den	

Antzeko programak kudeatzen izan esperientzia:

_____

_____

_____

_____

_____

	Proiektuan barne-hartutako jarduerak:
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	
16	
17	

.....(e)ko .....ren .....a

Legezko ordezkariaren izenpea

II.

ZINPEKO ADIERAZPENA

Jaun/Andrea
Honako erakunde honen
ordezkaritzan:

NAN-zk:

IFK:

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor-arloko edo administrazio-arloko zehapenik ezarrita ez edukitzea, eta horretarako ezgaitzen duen lege-debekuaren eraginpean ez egotea.

Zinpeko aitorpena, adieraziz sexu-diskriminazioagatik zigor administratiborik edo penalik ez duela jaso eta, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraikiz, deialdietan edo laguntzetan parte hartzeko debekuarekin ez dagoela zigortuta.

Laguntza-eskabide honetaz gain, gaur arte, erakunde publiko edo pribatu hauetan eskabidea aurkeztu du eta /edo laguntza eskuratu proiektu hauetarako:

Eskabidearen eguna	Erakundea	Eskatutako kontzeptua	Erantzuteke/Onartua/Ukatua	Laguntzaren zenbatekoa (euroak)

Halaber, programa honetan eskatutako proiektuentzat, ekitaldi honetan, erakunde publiko zein pribatuetan egindako laguntza-eskabide guztien berri emateko konpromisoa hartzen du.

.....n, ko/eko .....ren .....an/ean

Legezko ordezkariaren izenpea

III.

ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA

1.– DESKRIPZIOA

Izen osoa:	
Izen laburra:	IFK:
Eratze-eguna:	
Helbidea:	
Posta-kodea:	Herria:
Lurralde Historikoa:	
Telefono-zenbakia:	Faxa:
E-maila:	Web-orrialdea:

2.– PROIEKTUA BURUTZERA DEDIKATZEN DIREN ERAKUNDEKO PERTSONAK (betetzea aukerakoa):

Lehendakaritza:			
Sexua: Gizona☐ / Emakumea ☐	Izendapenaren eguna:		
Gerentzia:			
Sexua: Gizona☐ / Emakumea ☐	Karguaren izena:		
Proeiktuko gainerako pertsonak:			
Sexua: Gizona☐ / Emakumea ☐	Izena:	Kargua:	
Sexua: Gizona☐ / Emakumea ☐	Izena:	Kargua:	
Sexua: Gizona☐ / Emakumea ☐	Izena:	Kargua:	
Sexua: Gizona☐ / Emakumea ☐	Izena:	Kargua:	
Sexua: Gizona☐ / Emakumea ☐	Izena:	Kargua:	
Sexua: Gizona☐ / Emakumea ☐	Izena:	Kargua:	
Sexua: Gizona☐ / Emakumea ☐	Izena:	Kargua:	

3.– PROIEKTUA BURUTZEKO ERAKUNDEAK ERABILITAKO BALIABIDE MATERIALAK:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

V

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

1.– BURUTU BEHARREKO JARDUEREN KRONOGRAMA:

	Data

2.– PROIEKTUAN BARNE HARTUTAKO JARDUEREN AURREKONTU OSOA:

……

……

……

……

……

……

……

……

……

……

……

3.– ESKAINI BEHARREKO PRESTAKUNTZA-PLANA:

Ordu-kopurua	
Egukiak:	

IV

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

4.– BEKAK ZEIN HERRIALDETAN BURUTUKO DIREN:

HERRIALDEAK	PROIEKTUAK

GAZTEEN TITULAZIOA:

.....
.....
.....
.....
.....

5.– ATZERRIAN KOLABORATZEN DUTEN ERAKUNDEAK ETA/EDO ENPRESAK:

Enpresa/erakundearen deskribapena:

Izena:	IFK:
Lurralde Historikoa:	Udalerria:
Herria:	Posta-kodea:
Kalea:	Zenbakia:

Sektorea:
Negozio-unitateak edo azpisektorea:

Enpresa/erakundearen deskribapena:

Izena:	IFK:
Lurralde Historikoa:	Udalerria:
Herria:	Posta-kodea:
Kalea:	Zenbakia:

Sektorea:
Negozio-unitateak edo azpisektorea:

IV

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Enpresa/erakundearen deskribapena:

Izena:	IFK:
Lurralde Historikoa:	Udalerria:
Herria:	Posta-kodea:
Kalea:	Zenbakia:

Sektorea:
Negozio-unitateak edo azpisektorea:

Enpresa/erakundearen deskribapena:

Izena:	IFK:
Lurralde Historikoa:	Udalerria:
Herria:	Posta-kodea:
Kalea:	Zenbakia:

Sektorea:
Negozio-unitateak edo azpisektorea:

IV. ERANSKINA

AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN BALORAZIO-IRIZPIDEAK ETA HAZTAPEN-FAKTOREAK

IRIZPIDEAK	HAZTAPENA	
Proiektuen argitasuna		**30 puntu**
Nahikoa	12	
Ona	18	
Bikaina	30	
Bekaz baliatzeko aldien luzapena		**30 puntu**
2 hilabete baino gehiago	30	
2 hilabete	20	
Hilabete 1	10	
Luzapen gehigarririk gabe	0	
Titulazioen estaldura		**20 puntu**
4 titulazio baino gutxiago	5	
4 titulaziotik eta 8ra	12	
8 titulazio baino gehiago	20	
Aurkeztutako beka-kopurua		**15 puntu**
80 beka	15	
60< beka-kopurua <80	10	
40< beka-kopurua <60	5	
Erakundeen arteko kooperazioa		**5 puntu**
Kooperazioa badago	5	
Ez dago kooperaziorik	0	

V. ERANSKINA

EBALUAZIO-ORGANOAREN OSAERA

Ebaluazio-organoa Nazioartekotzeko zuzendariak eta zuzendaritzako bi kidek osatuko dute:

Ainhoa Ondarzabal Izaguirre, Nazioartekotzeko zuzendaria.

Iñaki Ezkurra Yurrebaso, Nazioartekotze Programen arduraduna.

Mara Estibalez Presa, Nazioartekotze ko teknikaria, idazkaria.